

Velez de Mendizabal: "Barandiaranen lana dibulgatzeko urtea izango da 2014a"

Barandiaran Fundazioko presidente aukeratu dute

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Josemari Velez de Mendizabal berretsi dute Jose Miguel de Barandiaran Fundazioko Zuzendaritza Batzordeko presidente karguan; eta datorren urterako helburu nagusiak badauzka: On

Jose Miguel jaio zela 125 urte beteko direla eta, batez ere haren lana dibulgatzeko urtea izango dela esan digu Velez de Mendizabalek.

Fundazioko Patronatua Ataunen batzartu zen hilaren 17an, eta

orduan aukeratu zuten Velez de Mendizabal berriz kargurako. 2010a ezkero bazuen ardura hori.

Material berria daukate

Josemari Velez de Mendizabalek honakoa azaldu digu: "Datorren

urteari begira, batez ere dibulgazioa izango da gure leitmotiv-a. Seguru aski, hiru aldetatik egingo dugu hori: bat, idatzizkoa, batez ere gure webean, eta dagoeneko hasi gara hainbat kolaboratzaileri lanak eskatzen; gero, Euskonews aldizkariaren bitartez pare bat lan monografiko egingo ditugu; On Jose Miguelen bideo asko ditugu digitalizatuta, eta hori webean eta Euskonews-en bitartez zabalduko dugu. Horrez gain, ikus-entzunezko material berria sortu dugu".

Material berri horren gainean, Fundazioak, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko foru aldundiekin eta Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean lurralde bakoitzean Barandiaranek egindako lanaren inguruko ikus-entzunezko bana egin nahi du, eta egunean batzartu zen Fundazioko presidentea Arabako foru arduradunekin. "Arabian

egundoko lana egin zuen eta horren gaineko bideoa egin nahi dugu", esan du Velez de Mendizabalek.

Hitzaldiak hiriburuetan

Material berri hori dibulgatzeko, "orain arteko formula" erabiliko du berriz Fundazioak: Donostian, Gasteizen, Bilbon, Baionan eta Iruñean hitzaldi-ziklo bana antolatuko dute, eta, "seguru asko, Ataunen ere bai".

Horrez gain, "prentsako artikulak, Eusko Ikaskuntzak kudeatzen dituen irrati-programetan mezuak tartekatu, tertuliak, mahai-inguruak..." erabiliko dituztela dio Velez de Mendizabalek.

Ohiko lana ere egingo dute

Fundazioak bere ohiko lana ere egingo du: Barandiaranen "legatu erraldoia" zaintzea, babestea, ikertzea eta dibulgatzea.

ESANAK

"Barandiaranen bideo asko ditugu digitalizatuta, eta Interneten bidez zabalduko ditugu"

"Arabian egin zuen egundoko lanaren gaineko bideoa egin nahi dugu Foru Aldundiarekin batera"

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL | FUNDAZIOKO PRESIDENTEA



Josemari Velez de Mendizabal, Fundazioko beste kide batzuekin, Ataunen. | BARANDIARAN FUNDAZIOA